

Joxe Insausti Urbizu

*Segura,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea

Biografia



Segurako Aizkoetagoiena baserrian jaioa, aita zuen bertakoa eta ama zegamarra. Gazte-gaztetatik bertsolaritzarako grina izan zuen eta hamaika plazatan aritu zen, Gipuzkoako hainbat finaletan ere kantatu zuelarik. Istorio zalea izanik, Segurako hamaika istorio kontatu zizkigun elkarrizketan.

Zintak

SEG-001

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arzelus, Edurne
- **Data:** 2004-01-01
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

SEG-010

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2011-12-21
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

SEG-011

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2011-12-21
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

SEG-012

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2011-12-21
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Bizimodua baserritik egiten zuten

- **Erref:** SEG-001/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:00:14. **Bukatu:** 00:02:29

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Bizimodua baserritik egiten zuten. Garai hartan artoa eta garia ziren uzta garrantzitsuenak Goierri inguruan. Afal ondoko errezoetan egiten zuten arto zuritzea. Artoaren ondoren garia ereiten zuten.</p>

2. Bertso zaletasuna amarengandik jasoa

- **Erref:** SEG-001/003

- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:02:29. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Errezoen ondoren, txiste, bertso eta kontu zaharrak aipatzen zituzten. Ama neskame egon zen etxeko morroiei entzunaz sortu zitzaizen bertsotarako zaletasuna. Amak bertsotarako afizio handirik ez bazuen ere, bere kantaera eta ahotsak jende asko erakartzen zuen. Joxek amarengandik jaso zuen bertsotarako zaletasuna, baina ez zuen haren eztarri eta "belarririk".</p>

3. Betso jarrietan hasi

- **Erref:** SEG-001/004
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:07:07

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>16-17 urterekin kalera jaisten hasi zirenean, bertso jarriak entzuten zituzten. Txirrita eta Lazkao Txiki aipatzen dizkigu. Jendearen bertso goseak eta bere etorriak, despedida eta abarretan bertsoak jartzera bultzatu zuten.</p>

4. Bertso txapelketak

- **Erref:** SEG-001/005
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:07:07. **Bukatu:** 00:07:58

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Jarraian bertso txapelketak hasi ziren. Urteetan Francoren garaiko diktadura zela eta txapelketak debekatuak egon ziren, euskara gaizki ikusia baitzegoen. Diktadura erraztasun gehiago ematen hasi zenean, 1960 aldera lehenengo txapelketak Goierrin Ordizian jarri zituzten. Joxe, haiek adina bazela uste arren, entzutera soilik joaten zen.

5. Soldadutza kontuak

- **Erref:** SEG-001/006
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:09:12

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutza egitera Burgosera joan zen. Euskaldunen artean, Txomin Garmendia, Azpillaga eta Lazkano bertsolariak suertatu zitzaizkion.</p>

6. Bertsotan lortutako txapelak

- **Erref:** SEG-001/007
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:09:12. **Bukatu:** 00:10:52

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Soldadutzatik bueltan, txapelketetan ateratzen hasi zen. Abokatu, euskal akademiko eta fraide ezagunak izaten ziren, besteak beste, epaimahaiko lanetan. Gipuzkoa bost puskatan banatzen zuten lehen aipatutakoak antolatzeke. Txapelketa batzuk irabazi arren, ez zen sekula finalik jokatzera iritsi.

7. Industria eta eztarriko arazoak

- **Erref:** SEG-001/008
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Garai hartan baserriak ez zuen diru askorik ematen eta Aristrain Olaberriko enpresan hasi zen lanean. Fundizioan hasi zen eta ez zion bertsotarako ahotserako batere laguntzen. 31 urte zituela mediku batek eztarriko arazoak zirela eta, espezialista batengana bidali eta amigdaletako ebakuntza egin zioten Bilbon. Ebakuntza ondoren berriz ere arazoak zituela eta ahotsik gabe geratzeko arriskua aipatu zioten kantatzea galaraziz. 32 urte betetzear zegoela, kantatzeari utzi behar izan zion.

8. Demokrazia garaian zinegotzi

- **Erref:** SEG-001/009
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:17:48

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Franco hil eta demokrazia garaia etorri zenean, herriko zinegotzi jartzeko deitu zioten udaletxetik. Berriz ere hango lagunak tentatzen hasi eta bertotara bueltatu zen. Euskadi Irratiak jarritako Pernando amezketarra sariketan parte hartu zuen. Bost saiotan jokatu zuen Pedro Etxezarreta eta Goibururekin, eta bost saioak irabazi zituzten. Atzera eztarria zela eta, erretiratu egin zen.</p>

9. Ikasi ezaren damua

- **Erref:** SEG-001/010
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:17:48. **Bukatu:** 00:19:49

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Lagunak eta irabazten zuen dirua zirela eta, ez zuen lana uzterik nahi izan, baina eztarriko arazoek behin baino gehiagotan damutuarazi zuten. Eskola eta musika ikasteko aukera ez izanaren pena dauka.

10. Euskara erdarari nagusitu

- **Erref:** SEG-001/011
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:19:49. **Bukatu:** 00:24:00

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Orduko Goierriko euskararen, azkar ezagutzen zuten bakoitza zein herritakoa zen. Erdaraz ondoen apaizek jakiten zuten, bertakoak ez ziren gai, euskara hutsean zekitelako. Euskararen berezitasunak eta herri ezberdinetako euskara aipatzen ditu.

11. Baserriko lanen inguruko kontuak

- **Erref:** SEG-001/013
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:26:43. **Bukatu:** 00:30:33

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Baserriko giroan lehengo ohituretan oinarritzen ziren. 1920-1960 inguruan egingo zen baserrian lan gehien. Ez zegoen baserrian lan tresna gehiegirik eta eskuz moldatzen ziren. Umetan segan asko eginak ziren, beraien aitona-amonak, aldiz, ez zuten ezagutu tresna faltagatik. Zaharretatik ondorengoetara pasa ziren ofizio asko, baina dirua ateratzeko fabriketara joan eta baserrria behera etorri zen.</p>

12. Lehen zaharrei errespetu gehiago

- **Erref:** SEG-001/015
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:31:35. **Bukatu:** 00:32:32

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Gaurko aldean zaharrei errespetu handiagoa zitzaien.

13. Festetan dantza heldua egiteko debekua

- **Erref:** SEG-001/016
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:32:32. **Bukatu:** 00:33:15

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Festetan lotuan ez zegoen dantza egiterik. Soinua herri txiki danetan jotzen zuten. Ilundu aurretik elizan kanpaia jotzen zuten eta neskek etxera joan behar izaten zuten.

14. Garraio eta errepide aldaketak

- **Erref:** SEG-001/018
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:34:45. **Bukatu:** 00:36:14

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Lehenago erromeriak izaten ziren eta pelikulak ere bai. 70etik aurrera industriak lagunduta garraioa asko aldatu zen. Gure aurrekoen bizimodua okerragoa izango zen elizaren arauak zirela-eta.</p>

15. Gaur egungo irakaskuntza

- **Erref:** SEG-001/019
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:36:14. **Bukatu:** 00:37:50

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Lehenago aldean gaur jende hobe dago, gehiago laguntzen dute elkar. Gaur eskola gutxi dago duena ere jakintsua da lehenago aldean.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com